

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Guk aukeratutako ideia makina bat sortzea izan da. Makina honen helburua, objektu eta arropen bigarren bizitza bat ematea da. Hau, makina horretan etxean genituen baina erabiltzen ez genituen jostailuak, arropa eta bestelako produktuak sartzean datza, diruaren truke. Gure ustez, makina honek asko lagundu dezake ingurumenean; azken finean, behar ez ditugun gauzei bigarren bizitza bat ematen diogulako eta beraz, produktu hori berrerabiltzeko aukera izango du beste pertsonaren batek. Ondorioz, produktu honen kontsumismoa txikiagotu egingo da, berria erosi beharrean, makina honetako produktua aprobetxatzen duelako.

Gure ustez, aukera paregabea da gaur egungo egoerari aurre egiteko, honi esker, gure egunerokotasuna okertzen ari diren faktoreak, horien artean, prezioen igoera eta produktu hauek sortzen dituenen fabrikak sortutako kutsadura gutxiagotuko dugu. Behar bada, horrelako proiektuak sortuz, jendea bigarren eskuko produktuak erabiltzera bultzatuko dugu eta horri esker gure egunerokotasunean kaltetzen diguten faktoreak gutxiagotuko dira.

Bestalde, gure makinaren bitartez, lortuko ditugun produktuak, hau da, makinan sartuko dituzten produktuak saltzen ez direnean, behartsuei bideratu edo bigarren esku bat emango zaie eta horregatik, populazioan eragin positiboa izango du. Gu, bakarrak izango gara, hau da, ez dugu lehiarik izango, izan ere, proiektu hau ez dugu beste inun ikusi eta gure helburua arrakasta izatea eta mundu osoan zehar garatzea izango da.

Guk sortutako produktu edo makina honi, Back Money deitu diogu. Bestalde, produktu hau sortutako enpresari OMNUS S.L. deitu diogu.